

M-27. HAUTESKUNDEAK >>

ELKARRIZKETA DIGITALAK

Markel Olano EAren Gipuzkoako diputatugai nagusia

«Euskal politikariok autokritika sakona egin beharra dugu»

ERREDAKZIOA
Donostia

Ez al da, guztien partetik, autokritika publiko gutxi eginen? Zertan zara kritika, adibidez, EAJ-k orain arte hogeinaka urtetan bultzatutako politikari dago-kionean? ANDRES

Arazoa konpontzeko autokritika ezinbestekoa da. Nire ikuspegitik, euskal politikariok oro har, eta baita EAJkook ere, autokritika sakona egin beharra dugu, gizartearekin orain arte izan dugun hartu-emanaren ikuspegitik. Nire ustez, hemendik aurrera gizartearen parte-hartzea bultzatu behar dugu, eta horrela egingo dugu Gipuzkoarentzat funtsezkoak diren arlo guztietan.

Euskadik (=Euskal Herriak?) Espainia lurratu behar duela dio Imazek. Konbentzi nazazu, mesedez, EAJk tresna baliagarria izaten jarraitzen duela Europaren barruan Espainiaren edo Italiaren pareko egitura eta nortasun politikoa izango duen herri bat osatzeko. IBON

Gure alderdiak, Euskal Herriak inguruan dituen herrieekin izan behar duen hartu-emanaren errespetuan oinarritzen du. Lehenik eta behin, herri gisa onartu, ezagutu eta errespetatu egin behar gaituzte. Hortik aurrera etorriko dira hartu-emanetan sakontzeak. Beraz, jaio ginenetik izan dugun helburuari eusten diogu. Horrekezu du esan nahi Espainiarekin nahiz Frantziarekin beti aurrez aurre



BERRIA

aritzea helburu dugunik, eta hor txertatzen dira gure alderdiko presidentearen hitzak.

Betidanik bozkatu izan dut Alderdiaren alde, eta nire emazteak HBren alde. Se-meak ere HBkoak ditut. Zure alde bozkatzaren badut, zerbait egingo duzu nire senideen botoak errespetatu daitezkeen? Merzei al du Alderdiari bozkatzeko? JOSU GOMAIO

Guk betidanik izan dugu Alderdi Politikoen Legearen kontrako jarrrera irmoa. Niri ere ez zait iruditzen zilegi herri honen zati garrantzitsu batek ordezkaritza ez izatea. Hala ere, gure helburu nagusia bake eta normalizazio prozesua martxan ipintzea da, eta prozesu honen bidez gatazka armatu eta gatazka politikaren espresio gaiz-

«Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze duen eskubidea aurrera ateratzea da apustua»

«Euskararen normalizazioari dagokionez, gure helburua euskal gizartearen elebitasun errealerara iristea da»

toenei konponbidea ematen saiatu behar dugu.

Zer esango zenieke hauteskunde gauean EAJren garaipena ospatzeko independentziaren banderak astintzen dituzten horiei? Erreferendun batean, aukera horren alde botoa eskatuko zenuke? JAIME ALZUGARAI

EAJk une honetan duen apustu funtsezkoa Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze duen eskubidea aurrera ateratzea da. Horretarako onartu genuen 2004ko abenduaren 30ean Estatutu Politikoko Berria, eta horretarako bultzatuko dugu herri kontsulta.

Zuk ere, Josu Jonk bezala, Mariano Raxoierkin itunik egingo zenuke? ANDONI ETXANIZ

Ez zait iruditzen inor baztertzea jarrrera egokia denik. Nik ez dut baztertzen, eta ez diot hitzik ukatzen ez PPri eta ezta ezker abertzaleari ere. Egia da Mariano Raxoierkin une honetan adostasunetara iristeko ez dugula aukerarik, nagusiki bake prozesuaren kontrako jarrrera duelako, eta gure herriaren erabakitze eskubidea errespetatzen ez duelako. Baina elkarrizketa ez zaio inori ukatu behar.

Zeintzuk dira zure asmoak euskara eta euskal kulturarekiko? LOREA

Euskararen normalizazioari dagokionez, gure helburu nagusia da euskal gizartearen elebitasun errealerara iristea. Horretarako, erabilearen apustua da gure erronka nagusia. Euskal kulturaren ikuspegitik, kultur produktuen sorkuntza, ekoizpena eta hedapena dira helburu nagusiak; eta horretarako, euskal kulturgintzak duen azpiegitura indartu egin behar dugu, bai enpresen eta baita komunikabideen ikuspuntutik ere.

Elkarrizketa osorik irakurtzeko, eta gai honetaz informazio gehiago biltzeko, bisitatu gure webgunea: <http://www.berria.info/elkarrizketadigitalak>

■ agenda

EAJ

■ **Gasteiz, 11:15:** La Florida parkean ekitaldia egingo dute, eta Mikel Martinezek, Xabier Agirrek eta Iñaki Gerenabarranak parte hartuko dute.

■ **Bilbo, 20:00:** Casilla aretoan egingo dute kanpainako azken ekitaldia, eta han izango dira Iñaki Azkuna, Jose Luis Bilbao, Juan Jose Ibarretxe eta Josu Jon Imaz.

EA

■ **Gasteiz, 19:30:** General Loma plazan egingo dute kanpainako azken ekitaldia, eta Antton Belakortuk, Mikel Mintegik eta Begoña Erraztik parte hartuko dute.

EAE-ANV

■ **Bilbo, 19:30:** Udaletxe parean egingo dute ekitaldia eta han izango dira Arantza Urkaregi eta Zuriñe Zorroza.

■ **Iruñea, 20:30:** Labrit pilotalekuan egingo dute kanpaina bukaerako ekitaldia.

Nafarroa bai

■ **Iruñea, 19:30:** Takoneran egingo dute ekitaldia. Patxi Zabaleta, Maiorga Ramirez, Jose Angel Agirrebengoa eta Txema Mauleon izango dira.

PSE-EE

■ **Santurtzi (Bizkaia), 19:30:** Santurtzi plazan egingo dute kanpainako azken ekitaldia, eta Patxi Lopezek, Antonio Pastorrek eta Myriam Fradek parte hartuko dute.

PSN

■ **Berriozar, 20:00:** Herriko frontoian egingo dute kanpaina bukaerako ekitaldia eta afaria. Han izango dira Jose Antonio Navidad, Carlos Chivite, Jesus Caldera eta Fernando Puras.

EB-Aralar

■ **Bilbo, 20:30:** Plaza berrian egingo dute ekitaldia, eta Javier Madrazok eta Ion Abrilek hartuko dute parte.

■ kanpaina 2.0

Nafarroari 'Bai'

Bai. Nafarroari Bai. Hori izan da UPNk hauteskunde hauetarako erabili duen leloa. *Bai* bat aurrera eman duten pauso bakoitzeko, eta beste *Bai* bat, duten helburu bakoitzeko. Hauteskundeetako kanpaina internet bidez egiteko ere erabili dute www.sianavarra.es, baina hori bai, webgunean ikus daitekeen guztia gaztelaniaz idatzirik dago.

Herriarrei UPNren proiektuak zein diren azaltzeko, eta izan ditzaketan zalantzak argitzeko, Sanzekin zuzenean harremanetan jartzeko bideak zabaldutuzte webgunean. Aurrez egin izan dizkioten galderak ikusteko aukera ere ematen dute, eta era guztietako itaunak egin dizkiotela ikus

daiteke. Nafarroaren etorkizunaz, iraganaz, koalizioez... Gizarte gaiei buruzkoak edota ingurumenaren ingurukoak. Guztiei ematen die erantzuna. Guztiei, bati izan ezik: ez daki kafe batek zenbat balio duen.

Iruñeko alkategai Yolanda Barcinarekin eta Tuterako alkategai Luis Casadorekin ere harremanetan jartzeko bideak ireki dituzte UPNk hauteskundeetarako ireki duen webgunean. Horiek ere hauteskunde kanpaina egiteko erabili dute internetek eskaintzen duen euskarria.

Informazio gehiago jasotzeko, bisitatu webgunea: www.sianavarra.es

Aldagailua



ORRI-KANTOIA

MIKEL BUJANDA
Kazetaria

Nafarroan gauzak aldatzeko behar larria dugu. Aldaketaren posibilitatea eskura, gertu dugu. Zergatik gero-ko utzi?

Beti-berdin egonez gogaiturik, espektadore etsituak izatera be-

hartuta, ahuldurik, agintarizatitak mesprezuz –mesprezu gaiztoz– hartzen gaituzte aspaldi luzean –, oso luzean –herrialdeko manatari ultramontanoek.

Astinaldi bat izan da: behingoz oharturik norbere aldetik, atomizaturik, ahulak eta deusen hurren direla, alderdi batzuk bakoizkeriak irentsi eta elkarlanean konprometitzeko gauza izan dira. Nafarroako gizarteari aurrez aurre begiratuz, hemengo jendearen neurriko planteamendu berritzaileak mamitu dituzte. Desberdinak ados jartzeko ortodoxiaren dogmak eta kredoak alboratzen jakin dute, koalizioan jokatzea sektarismoaren sendagailu dela ohartu eta, hausturaren mugaraino iritsita ere, dialogoaren zailtasuna eta balioa lehenetsi dute. Aurrerabidea markatuz.

Horrek ekarri du sinesgarritasuna eta bidean beste puska bat aurrera jotzeko indarra. Etsipena itxaropen bihurtu da. Aldagailua eskura dugu.

Hauteskunde distorsionatuak dira. Egia da. Askoren eskubideak arbitrarietatez ukatuak daude. Barbaritatea da, demokrazia kamutsa da hemengoa. Salaketa egin behar da, zinez; elkartasunez, zintzo jokatu.

Baina elkartasunak ez du aurrerabidea oztopatu behar. Ez du aldaketa blokatu behar. Elkartasun dinamikoa, aldatzailea behar da; ez paralizatzailea. Egungo egoera gainditu eta demokrazia osoagoa erraztuko duen aldaketa geroko begora uzten ez duena. Aldagailua eskura izanik, zergatik ez oportunitatea baliatu?

Oraingoa joaten utziz gero, batek daki noiz pasako den hurrengo tranbia.